

JULI IPARRAGIRRE GAZTE HAURDUNEKIN

Jone IDIAZABAL

1937-ko urte Berriarekin batera hain ezaguna den Añarbe baserrian jaio zen Juli Iparragirre Perurena. Bere amak, 6 urterekin besoetako izebarengana Donostiara bidali zuen, eskolatik gertuago egon zedin. Ezagun batzuren bitartez 16 urte arteko ikasketak Frantzes Eskolan egin zituen eta zuzenean Kontsulado Frantzesera sartu zen lanera 21 urte bete arte.

Besteei nola lagundu izan da bere betidaniko kezka. Poliki poliki ulertu zuen, Jesus berak bezala, lagun urkoarentzat bizi nahi zuela eta hori horrela, etxetik baino, Kristau talde batetik libreago eta errazago lan egingo zuela erabaki zuen. Kongregazio batetan sartu zen 21 urterekin, Ahizpa Laguntzaileetan hain zuzen, Donostiako "Villa Kristeta"-n. Hauek aukeratu zituen beraiekin afinidade gehiago zituelako, pobreekin lan egiten zutelako, bizitza ondo ezagutzen zutelako, eta etxe zentral bat ez zutelako, beraz kanpoan, askatasun gehiagorekin, behar zen tokietan lan egiten zutelako.

Jesus eta bere Jaungoikoa zenbat eta gehiago aztertu eta ezagutu orduan eta gehiago egon da besteekin, pobreekin. Pertsona askotan Berak eman digun bizitza, desberdintasun handiak daudelako, ondatuta dago. Horiei bizitza hobea gogotzen ahalegintzen da.

Iruñara joan zen 3 urtetarako, ikasketak sakontze asmoz, eta Komunitadekoek eskatuta. Parisen Teologia ikasten beste 2 urte egin zituen. Eleiza, Vaticano II. zela ta bizitzen ariz zen une berriak gertutik ezagutu zituen. Espainiara egokitu beharko zuela eta 2 urte egin zituen Madriden ikasten jarraituz.

Hurrengo pausoa Donostiara etortzea izan zen. 6 urte jardun zituen Elizbarrutian lanean, Parisen ikasi zuen Kristau Ikasbide berria nola eman erakusten. Madrida bueltatu eta beste 6 urtez bizi izan zen han. Haseran Zibelesen ondoan baino hura

ez zela berak nahi zuena eta txaboletako hauzo handi batera joan zen lanera.

Gotzaiak, kanpoan zeuden euskaldunei, hemengo arazoak hobeto ulertuko zituztelakoan, talde bat sortzeko eskatu zien, Euskal Herrian ekonomi aldetik aurrerapen handiak izan arren fedea zahartuz joan bait zen.

Juli eta beste 5 animatu ziren Errenterian Kokatuaz. Taldeko denek ez zuten lan ordaindua egiten eta bizitzeko adina atera behar zutenek Julik Orereta Ikastolako administrazio lanetara jo zuen. Baina horren orde irakasleak Kristau Ikasbidea nola irakatsi behar zen oso ondo ez zekitela eta Juliri, irakastea eskaini zioten. Haurrak, gazte jendea ulertzen, pazientzia edukitzen eta barrungo gaitasunak berritzen asko lagundu omen zioten.

Pisua alokatua zen eta horrek askatasuna ematen ba zien ere, beste edozein bezela, soldata betekin bizitzea zein zaila den konturatu ziren. Julirentzat harremanak oso garrantzitsuak dira, pertsonak behar asko dituela errazago ikusten da. Lehen uste zen Jaungoikoarekin egoteko mundutik kanpo egon behar zela, gaur egun ulertu da jendearekin egonez, Berarekin zaudela. Noski norberarekin egoteko mementuak ere behar izaten dira, baita taldekoekin egoteko ere, asko laguntzen zioten elkarri. Astero arratsalde bat beraientzat izaten zen hitz egiteko, nola zijoakien eztabaidatzeko, zer gertatu zitzairen, e.a... Honelaba, 8 urte egin zituen bere jaioterrian eta oso gustora gainera.

Ameriketako Kristau taldeak, apaiz eta katekista asko hiltzen zituztelako, bakarrik gelditzen ari omen ziren eta hemengo jendea eskatu zuten. Naiz eta hemen marginatu edo baztertuen artean egiteko gauza asko zeudela pentsatu, beste batzu bazeudela behar haiek betetzeko eta El Salvadorrera joatea erabaki zuen. Ez zen ondo atera ordea eta hortik denbora gutxira Nikaragua joan zen, bertan 5 urte igaro zituelarik.

Juliren betiko helburua, desberdintasunak kendu eta gauza guztiak denentzat izatea da, gizarte honetan utopi bat iruditu arren. Nikaraguako Gobernu Sandinista, hori bete nahian zebilen, eta hortan saiatzeko zirenei laguntzen zien. Gutxi konturatzen gara, janaria, mendi puntan dagoen baserrietako nekazariei esker dugula. Sandinistek nekazari arruntei, besteentzat produzitzen dutenei, beraien posibilitateen barruan, lagundu egiten zieten, txikiak han garrantzitsuak bait dira.

Hori horrela bizi zutelako, gobernu marxista zela esanaz, kanpotik gerra egiten zieten. Jendea hil, etxeak eta zelaiak erre egiten zituzten baina hangotarrekin batera, Julik, Jaungoikoak bizitza hobetu nahi zuela ulertu zuen eta



itxaropena, sufrimentuaren barruan, handitu egin zitzaion.

Sandinistek azken hauteskundeak galdu dituztenean pena handia hartu du, hala ere, proiektu hura bizirik dagoela dio. Gizarte kontsumista honek indibidualistak bihurtzen gaitu, berekoiak, han beriz pertsonaren baloreek osorik diraute.

Julio hazi zuen Donostiako izeba gaixotu egin zen bere hiloba kuttuna gerra batetan zebilelako batez ere, eta bueltatzea erabaki zuen. Duela ia 2 urte berriro Erreteriarra itzulia da oraingo honetan, besteak beste, haurdun geratzen diren neskatxekin lan egitera. Neska hauek etxetik bota edo alde egin behar izaten dute eta Eleizak, Karitaseko Galtzarabordako pisu batetan onartzen ditu. Neska gehienak Udaletxeak edo Karitaseko bidalitakoak dira eta etxea Karitasekoa denez Estatuko edozein tokitatik etor daitezke, Diputazioak, dirulaguntza, hemengoak mantentzeko bakarrik eman arren.

Duela 10 urte eraiki zen pisua eta dagoeneko 54 neska pasa dira, gazteena 14 urtetakoa. Euskaldunen bat ere pasa da bainan gehienak hemen bizi diren kanpotarrak dira. Aldiro 3 edo 4 neska, haurdun edo beraien haurrekin, egoten dira. Gehiago ezinezkoa da elkarren arteko harremanak erraztu nahi badira. Haseran zaila omen da, bakoitzak bere arazoak bait dakartza eta oso mindua dagoen jendea bait da. Juliren aldeko harrera beti ona izatea beharrezkoa dela dio, orain arte kanpoan izan ez duten goxotasuna eskeini asmoz. Gazteak direla eta etxe bat eramaten, hurrez arduratzen, e.a. ikasi behar dute, heziketa bat behar dute beraien bizitza eta haurrena aurrera eramaten ikasteko. Pisuan urte bat egin daitezke, lana eta etxe bizitza bilatu bitartean.

Beti izango dira nahi gabe haurdun gelditzen direnak. Normalean formaziorik gabeko jendea da, horregatik preparatu behar dira beren dignitate osoan, Bizitzak, kasu batzuetan haurra ez edukitzea hobe izango litzakeela erakutsi dio Juliri, baina legeak ez du hori onartzen, naiz eta hain aurka azaltzen direnak gero asko lagundu ez.

Kasu ezberdinak daude. Batzuk haurraren aitarekin harreman onak dituzte baina elkar bizitzeko posibilitaterik ez dute. Beste batzuk beriz bakarrik daude, mutila drogan sartuta edo familia arazoz beteta dituzte. Ikusten da, behartsu batzuk, mementu edo bitartekoak direla, besteak beriz behin betikoak.

Julik neska hauekin pasatzen du gaua eta egunez, hauzoko sikologo talde batekin haurrei sikoterapia egiten lan egiten du. Normalena ezkontzea dela eta askotan ondo preparatu gabe ezkontzen da jendea eta arazoak azkar sortzen dira. Gabinetean honetan haurrak dituzten arazoak ikusten dira. Batzutan famili terapia eginaz zuzentzen dira eta kontsulta ordaintzerakoan diru arazoren bat baldin badute Udalak laguntzen du. Hala ere etorri beharko luketen guztiak ez dira etortzen.

Elizbarrutiko talde batekin ere ari da lanean, Gipuzkoako beste monjak behartsuen egoeraz ardura arazi nahiean. Jadanik asko dira hortan lanean, baina beste batzuei, ikastetxeetan lan egiten dutenei adibidez, oraingo behartsuen aurrean nola erantzun dezaketen sensibilizatu nahiean dabil.

Gizarte honek, behartsu edo baztertu berriak egin ditu. Hauen alde jokatzeko justiziaren alde jokatzeko da. Eleizak honela ikusten du behintzat. Juliren taldearen lana beharrak betetzeko da; ofizialki edo estruktura mailan, erantzun bat ematerakoan ardura beraiengan erortzen da. Adibidez, duela 18 bat urte, monjak, ijito haurrentzat eskola zubi bat sortu zuten, eskola normal batean hasi baino lehen garbitu, jantzi, ordutegi bat betetzera, e.a. ohitu arazteko. Lan hori Delegazioak hartu zuenean, monjak beste zerbaitetara pasa ziren.

Juliren taldeko beste batek, auzoan dagoen beste pisu batetan, 6 edo 7 neska-mutilekin lan egiten du, arazo gehiegi

dituztelako bere familiekin bizi ezin duten neska-mutilekin. Diputazioak laguntzen du. 3-5 urtekin etortzen dira eta soldaduska egin edo ezkondu arte egoten dira. Astean zehar eskolara joaten dira eta aste burutan familiarengana beraiekiko harremana gal ez dezaten. Batzu "Protección de menores"-etik datozen, asiloetatik datozenak aldir harreman arazo handiagoak izaten dituzte pertsonengan konfidantza galdua dutelako. Heziketa lan handia egin behar da pisu barruan, konfidantza osoan, pazientzi askorekin. Lan zaila benetan. Egun inon nahi ez duten 13 urteko mutil bat dago, eskola guztietatik bota dute eta bazter guztietan lapurtu egiten du.

Auzo berean, eta Juliren taldearen ardurapena, emakume jipoiuentzat dagoen beste pisu batetan ere lan egiten dute. Udalak bidaltzen ditu, epaiketa egin arte, senarrak aurki ez dituzten etxe honetara etortzen dira. Emakume bat bere 10 seme-alabekin egona da. Hainbeste urte senarrarekin bizi eta bapatean utzi beharrak, kalean, lanik gabe, nora joan jakin gabe beharrak, desoreka handia suposatzen du. Entzuten, hitz egiten laguntzen zaie, epaiketa atera bitartean, oreka errekupeatu arte.

Donostiako "Villa Kristeta"-ko gela batzu "Proyecto Hombre"-ri utziak dituzte. Etxe honen ondoan haurtzaindegi bat egin zen eta egun beste edozeinek bezala funtzionatzen duenez, aberatsen beharrei erantzuten alegia, eta etxearen jabeak direnez, beraiek hartuko dute ardura eta beste bide batetik zuzentzeko asmoa dute, benetako beharrak betetzeko asmoa.

Noski, oraindik behar batzuk ukitu gabe dituzte, prostituitzen diren emakumeak adibidez. Asko, kanpotik etorriak dira eta bizitzeko dirua behar dutenez edozein gauza egiteko prest daude.

Une honetan Julirekin, haurdun geratzen diren nesken pisuan, Erreterria, Pasaia, Gasteiz eta Iruñako lau neska daude, 23, 16, 18 eta Enpresarialeko 4. kurtsoa egiten ari den bat. Orain denbora gehiena daramanak, haur eder baten amak, haseran ez zekien haurra eduki edo ez. Abortoak dirua balio du eta arrisku batzuk ere baditu eta zalantza gaudituz arte ez zuen ama izatea erabaki. Bere gurusoak banatuta zeuden, amak haurdun zegoela jakin zuenean etxetik bota zuten. Haurraren aita drogan sartuta zebilen, ez zuen inongo laguntzarik. Asistentarengana jo zuen eta pisu honetara bidali zuen. Asistentak bere amari deitu zion eta zerbait desegokia entzun behar izan zuen.

Haseran, taldera egokitu arte eta gauzak argiago ikusten hasi arte, oso gogorra izan zen. Haurra adopziorako eman zezakeen baina 9 hilabete barruan eraman ondoren inola ere ez. Bere abizenak eman zizkion, aitak erantzun ez zuenek, berak dauka ardura guztia. Abizenak jartzeko aukera beti baina kentzeko inoiz ez.

Oso gaizki pasa zuen, bere ama ezezagun bat bezala pasatzen zen ondotik. ez zuen amarekin ezer jakin nahi, haurtzaindegia larunbatetan itxita zegoen aitzakiarekin, berarengana jo zuen arte eta denboraren poderioz eta haur bat tarteko onartu zuen arte. Orain beriz alabari ukatu zizkion laztanak bilobatxoari egiten dizkio.

Aurpegia emanaz atera zintezkeela diote neskek, baina lana egin behar da noski. Irteera bat "Traperos de Emaus"-ekoak dira, han bizi edo han lana egin dezakete, noski laguntzeko, aurrera atera nahi duzula argi ikusi behar dute. Soldata soziala ere hor dago. Pisuan, neskek lehendabizi ikasi eta gero erakutsi egin behar dute. "Pazientzi handia behar da bainan zurekin izan dutenaz gogoratu eta errazagoa". Ama gazte honek pisuan egin duen urtean, dagoeneko 5 neska pasa dira. Batzuk ez dute urtea betetzen, mutilak lokalizatu eta ihes egin behar dutelako.

Berak etxe batean lan egiten du. Protekzio ofizialeko pisu bat hartu nahian dabil, ematen ez badiote beste bat alokatu beharko du, baina berak irabazten duen soldatarekin ordaintzeko iritxiko ez zaionez, une larrietan lortu daitekeen premiazko laguntza eskatu beharko du.

Kalea horrelako jendez josita dago, ibiliaz ezagutzen dituzu. Galtzaraborda moduko etxe gehiago baleude, babestuagoak aurkituko lirateke.

Julik, Ameriketako hiru Herrialde ezagutu ditu, hango miseriaz ederki jabetu delarik. Oso gustora omen dago Euskal Herrian baina noizbait Ameriketara itzultzeko irrika ere bai omen du.

Baina Juli Ameriketara itzutzen bada, nork egingo du bere lana?

Gizarte materialista, berekoi honetako nork beteko du bere hutsunea?

